


90. zk.
2000ko ekaina

Gasteizko Euskaldunon aldizkaria



ARRABIA EUSKARAZ 2000 LAUDIO



globe


LIBURUAK

Benito Ginea kalea, 2. Tel-faxa: 945-257514. Gasteiz.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

“Txikia zainduz handitu”

hilabete honetan



22... 24. orr.
Araba
Euskaraz.
Badok hogei.



12... 15. orr.
Zukua. Evaristo. *“Toda
la puta vida igual”*



26... 27. orr.
II. Gau-mendi
Ibilaldia.

Atal berria!
**Euskal Herriko Kontsumitzaileen
antolaketa (EKA) 7. orrialdean**

9. orr. Bagare-ren bidaia
Kroazia eta Eslobeniara.

10. orr. GEU-ren
proposamena. Kultur Errota.

16. orr. Elhuyar:
Olatuen energia.

17. orr. Euskharan:
Helduentzako Heziketa
Iraunkorreko D eredua.

28. orr. Euskara harat-honat.

29. orr. Julio Salinas.

• atalak •

4. orr. zizka-mizkak - 7. orr.
hamaika kontu - 11 orr. nik uste!
18. orr. Kozkortuz - 32. orr. Zeuk
aukeratu! - 34. orr. Komikia

termometroa



UDAL KAZETAren 146. zenbakian Udaleko Hezkuntza Sailatik bideratu kazetaritza tailer baten programatik, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutakoa, sortu “Gasteiztxo” Eskola Egunkariaren lehen alea (Samaniego Eskolaren eskutik, lehenengo hau) kaleratu zen. Honaino ondo,

proiektu interesgarria... Baina EUSKARAZ 9 HITZ BAINO EZ DIRA AGERTZEN: Udaleko, Hezkuntza, Saila, Gasteiztxo, Eskola, Egunkaria, Antolatzailea, Egilea eta Laguntzaileak... Espero dezagun lehen alearen kontua izatea, eta hurrengoetan hutsune hau betetzea... Hain zaila al da, jakinda gainera egungo ume eta gazte asko eta asko, gehienak ez esatearren, elebidunak -eta eleanitzak!- direla?



Udaleko Hezkuntza Saila

Eskola Egunkaria Samaniego / 3º de E.S.O.
GASTEIZTXO
Departamento Municipal de Educación Periódico Escolar

Gran asistencia en las jornadas sobre jóvenes y drogas del colegio Samaniego

El colegio Samaniego organizó unas jornadas sobre las drogas legalizadas (alcohol y tabaco). Según un estudio, realizado por la Facultad de Farmacia de Vitoria, hoy en día los jóvenes están aumentando el consumo de tabaco y alcohol, sobre todo los fines de semana. Este estudio se ha realizado entre personas de edades comprendidas entre los dos y los dieciocho años. **PÁGINA 8**



Sociedad
▼ Página 3 Las personas con minusvalías protestan por las barreras arquitectónicas

Cultura
▼ Página 5 La Fundación Sancho el Sabio es el mejor centro documental vasco

Ecología y Salud
▼ Página 6 Los tres reinos del Museo de Ciencias Naturales de la ciudad

Centro Educativo
▼ Página 8 Arreglos en el colegio y actividades

Las quejas de los consumidores se recogen en una oficina municipal

La mayor parte de los casos planteados se resuelven

El Departamento Municipal de Salud y Consumo se encarga de defender los derechos de los ciudadanos vitorianos ante cualquier abuso derivado de la compra o consumo de cualquier producto. Este servicio además cuenta con un organismo denominado Junta Arbitral de Consumo que permite arreglar, sin utilizar la vía judicial, los problemas que surgen entre los compradores y las tiendas. Para ello, la empresa se ha tenido que adherir previamente a este organismo. La mayoría de las quejas se arreglan, aunque si no es posible lograr un acuerdo, se acude a instancias judiciales. **PÁGINA 3**



Entrada al Departamento Municipal de Salud y Consumo

El ruido, un habitante más de nuestra ciudad

En los últimos años el ruido en Vitoria ha aumentado pese a que sigue siendo una de las ciudades con mayor calidad de vida del Estado. La industrialización y el aumento de la población ha ido evolucionando debido a la construcción de nuevos edificios en las afueras de la ciudad.

El ruido, principalmente por la noche, se encuentra en el centro de la ciudad, debido a que los jóvenes acuden a diversos locales nocturnos que hay en el Casco Viejo. Durante el día, el ruido

se concentra en las zonas industrializadas por la cantidad de tráfico que recorre estas zonas. El Ayuntamiento está buscando soluciones al problema de la contaminación acústica en Vitoria-Gasteiz. **PÁGINA 7**



El transporte público sufre con contaminación

Morir por sus derechos

Iñaki Masillá era un niño paupérrimo que cuando tenía cuatro años su familia lo vendió por dos mil pesetas a un vendedor de alfombras. Iñaki estuvo trabajando con el vendedor de alfombras durante unos años, en Paragaitz, hay ocho millones de niños que son explotados mediante un trabajo como esclavos. Cuando tenía doce años, lo descubrieron y luchó contra la esclavitud. Se convirtió en un mito y en Boston recibió un premio de dos millones de pesetas, prometiendo fundar una escuela. Más tarde, la mafia de la industria de la alfombra le asesinó. **PÁGINA 4**

GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate.
Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.
Argazkiak: Edorta Sanz.
Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Mikel Valverde.
Kolaboratzaileak: Amaia Zaldúa, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea:** Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale Kopurua: 2.500 - **LG:** VI-582/92 - **ISSN:** 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



zenbakia

210.419

milioi pezetakoa da 2000 urteko EAeko polizia gastua eta koste militarra, “GASTEIZKOAK” TALDE ANTIMILITARISTAKO KIDEEK maiatzean aurkeztu militarismo eta antimilitarismoaren egoeraren inguruko txostenaren arabera. Ikerketa honen ostean honako hau da euren salaketa eta proposamena: gastu militarrek etxebizitza sozialetarako erabiltzea, hots, gastu honekin gaurko etxebizitzaren arazoa konpon litekeela...




Koldo Mendoza de la Hoz argazkilariak irabazi du Prudentzio Deunaren Argazki Lehiaketa. Arabar batek lehiaketa hau irabazi duen lehenengo aldia izan da.

ikusi-makusi



Edorta Sanz GEU aldizkariko argazkilariak Zinbawuera egindako bidaian atera argazki honek ere herrialde-saria jaso zuen.

araba bixotzian Mikel Valverde



Ametzagako Eliza

izenak

Euskarazko Irakaskuntza

**Koldo Mitxelena Institutuko eta
Ikas-Bidea Ikastolako ikasleek
Gasteizko notarik onenak lortu
zituzten iazko hauta-probetan.
Ea, ba, aurtent!**



✓ Gasteizko setioaren 800. urteurrena (1200-2000) ospatu zen maiatzean **Arabera Kultur Elkartek eta Gasteiz Txiki Auzo Elkartek** antolatu Gasteizko Alde zaharreko Historiari buruzko I. Jardunaldien (Toti Mtz. de Lezea, Tomas Urzainki eta Patxi Zabaletaren hitzaldiak), eta jai eta aldarrikapen giroan Martin Txipia eta gaztelaniarren setioari -9 hilabetez- aurre egin ziotenei eskaini omenaldiaren bidez.

✓ 1774. urtean jaio Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren 225. urteurrena dela eta, ikasleei zuzenduriko Arte Plastikoen I. Sariketa, Tomas San Miguel (pianoan) eta Jorge Pardoren (saxoa) kontzertua, eta azkenik, eskolako guztientzako afari bat izan ziren maiatzeko antolatu ekitaldiak. Geu aldizkaria itxi orduko saridunak ez ziren oraindik ezagutzen.

motz-motzean



✓ Bestetik ere, **Tomas Urzainki** abokatu eta idazle nafarraren "La `voluntaria` conquista" liburuaren aurkezpena egin zen Gasteizen. Araban eta Gasteizen duela 800 urte jazo gertaera historikoaren azterketa da, "hemen historia ofizialak kontatzen duena desmitifikatu nahi da: Gaztelako erresumari borondatez atxiki zitzaizkiola, itun bidez. Horrelakorik ez zen eman, baizik eta konkista argi bat", Urzainkiren hitzetan.

✓ 2003. urte arte erabili ahal izango da Gardelegiko zabortegia. 2010era arte iraungo zuela uste zen duela gutxi arte, baina azken lau urteetan eraman zabor kopuruak gora egitearekin batera zabortegiaren bizia laburtu egin da. Zabortegia handitzeko proiektua aztertzen ari da orain Gasteizko Udala. Zehaztu gabe dagoen arren 3.000 milioi pezeta

baino gehiago beharko dira lanak egiteko.

✓ Gasteizko Udalaren oposizioa alderdiek gogor kritikatu dute Arakako base militarrean soldadutza egiten duten mutilek 1.000 pezetaren trukean udal kirol instalazioetarako sarrera jasotzea. EAJ, EA, EB, EH eta PSE-EEren ustez neurriak gainontzeko gasteiztarrek diskriminatzen ditu, soldaduek ohiko kuotaren %10 baino ez baitute ordaintzen.

1200 - 2000
800 aniversario del sitio de Gasteiz
Gasteizko setioaren 800. urteurrena

Gasteizko Alde zaharreko Historiari buruzko I. Jardunaldiak
I. Jornada de Historia del Casco antiguo de Gasteiz

HITZALDARIK
Martakoa 9:00h. **Balanceamos el sitio de Gasteiz del año 1200**
(Toti Martínez de Lezea)

Martakoa 10:00h. **Gasteiz en la Navarra y Europa del siglo XII**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 13:00h. **La seguridad de Gasteiz**
(Patxi Zabaleta)

Ekitaldiak
Martakoa 13:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 18:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 19:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 20:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 21:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 22:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 23:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 24:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 25:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 26:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 27:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 28:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 29:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 30:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 31:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 32:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 33:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 34:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 35:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 36:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 37:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 38:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 39:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 40:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 41:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 42:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 43:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 44:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 45:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 46:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 47:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 48:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 49:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 50:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 51:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 52:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 53:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 54:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 55:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 56:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 57:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 58:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 59:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 60:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 61:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 62:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 63:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 64:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 65:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 66:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 67:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 68:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 69:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 70:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 71:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 72:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 73:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 74:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 75:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 76:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 77:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 78:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 79:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 80:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 81:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 82:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 83:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 84:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 85:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 86:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 87:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 88:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 89:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 90:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 91:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 92:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 93:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 94:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 95:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 96:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 97:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 98:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 99:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

Martakoa 100:00h. **Conferencia: Gasteiz, un pueblo de frontera**
(Tomas Urzainki)

naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulгатzea eta konserbatzea helburu nagusizat dituen elkarte zientifiko eta kulturala da. (tfnoa: 945 24 66 06)



Amuarraina (*Salmo trutta*).

Iñaki Zorrakin

Ikasketak atzerrian

Udan gero eta familia gehiagok bidaltzen dituzte seme-alabak atzerrian ikastera. Esperientziarik gehienak onak izaten dira, halere, batzuetan gurasoak haserre agertzen dira.

Arazorik ez izateko, hainbat gauza hartu behar dira kontutan aldeztu aurretik.

Ikastaroa hasi baino bi edo hiru hilabete lehenago hasi behar da informazioa jasotzen. Hainbat enpresa bisitatu ditugu, ahal den informaziorik gehiena biltzeko. Horrelako bidaiek eskaintzen dituzten enpresek informazio-orriak atera ohi dituzte. Nahi dugun informazioa bertan aurkituko dugu. Eskatu orri horiek eta gorde bidaia bukaturte arte.

Ikastaroari begira, lehenik, ikastegiaren kalitatea izan behar du kontutan. Begiratu ia ikastegia ospetsua edo ezaguna den.

Ikastaroek lau aste inguru irauten dute eta gutxienez hiru orduko saioak egin behar dira eguneko.

Ikasgela bakoitzean, gehienez, hamabi edo hamalau ikasle egotea komeni da. Euskaraz edo gaztelaraz hitzegiten ez badute, hobe.

Bizitokiari dagokionez, bi aukera daude: bata, ikaslea familia batekin bizitzea; eta bestea, ikasle-egoitza batera joatea.

Adituen ustez, hobe da familia aukeratzea, ikasle-egoitzetan askoz errazagoa baita hizkuntza bereko ikas-

kideak aurkitzea, eta orduan, gutxiago erabiltzen dute ikasten ari diren hizkuntza.

Seme-alabak familia batera bidaltzea erabakitzen badugu, eskatu familiari buruzko informazioa: izen abizenak, helbidea, telefonoa, e.a. Eskatu baita ere, beste datu batzuk, esaterako: esperientzia, etxebizitza mota...

Gastu orokorrak ere kontutan izan behar ditugu: ikastegiaz kanpoko ekintzak, ikasteko materiala eta hiriko garraioa.

Beste gai garrantzitsu bat ikaslearen aseguru da. Aseguru berezi eta zabalak kontratatu behar da, bat ikasle bakoitzeko. Ospitaleko gastuak, ekipajea, etxera itzultzea, e.a. sartu behar dira aseguruaren barruan.

Ikastaroa aukeratu eta gero, enpresa legala den egiaztatu behar du, baita atzerrian ze azpiegitura daukan. Dena ondo badago, eskatu idatzizko kontratua. Bidaia eta ikastaroari buruzko zehaztasun guztiak jaso beharko dira bertan.

Gure seme-alabak atzerriara bidaltzea oso egokia izan daiteke hizkuntzaren bat ikasteko eta munduan zehar ibiltzen ikasteko. Zuhur jokatzuz gero esperientzia zoragarria izan daiteke.

- Gorde informazio orriak
- Eskatu idatzizko kontratua (ondo zehaztuta)
- Arazorik sortuz gero, jo Kontsumitzaileen Elkartera

EKA Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa • 945 28 31 94

TXAPELA BURUAN IBILI MUNDUAN

"ENEKOREN Azkenak eta esanak"

Azken bolada honetan arazoak egon dira Enekoren nondik-norakoan berri izateko, baina inkomunikazio hau gaindituta, hemen dituzue Enekoren azken berriak:

***MARTXOAN ZEHAR IBILITAKOAK:**

• **IRAN:** Aipagarriena, **BALUCHISTAN** basamortua, "munduko zabaldirik elkorren eta urrutikoena", "ezerezez beteriko zabal-di mugagabeak".

• **PAKISTAN:** "Erdi Aroa", "gizonezkoen herri eta kaleak" (emakumeak etxetan baitaute).

• **INDIA:** - **AMRISTAR:** Sicks-en hiri sakratua (Urre-tenplua). Kultura honetan musikak duen garrantzia mintzo da Eneko. - Amristar-etik **HIMALAIAKO** magalera, Dharamsala-ra: Tibeteko kultura eta budismoan murgilduz, lasaitasuna nagusi.

- Himalaiatik **DELHI**-ra: 10.000.000 biztanle, gehi behiak, txakurrak, ahuntzak... "Gauza txikiez gozatzen dakite, unea bizi dute". - Delhi-tik **BENARES**-era (Varanasi): "Bizitza eta heriotzaren hiria", "Indiako izarra, ezbaierik gabe". - Benares-etik Kalkuta-ra eta Kalkutatik...

• **INDOTXINA-ra:** - **THAILANDIA:** Bangkok

***APIRILEAN ZEHAR IBILITAKOAK:**

***HONAINO 19.000 KM-44 EGUN BIDAIATZEN**

Eta hemen zalantzak... Indotxina, Indonesia, Australia...

• **MALAYSIA**-rantz (Indotxina) doa, gero hegoalderako bidea hartu asmoz. Malaysia-tik gertu, eta 1200 km. egin ondoren (2 aste; Bangkok-Malaysia), "eroaldi" baten ondorioz Bangkok-era itzultzen da berriro, Iparraldera joan asmoz.

• **BANGKOK-LAOS** (Indotxina); hiriburura: Vientiane. Gabonza-harra zen Eneko heldu zenean (Egutegi budistaren 2543. urtea) *3 urte berri ospatu ditu dagoeneko Enekok (1999-2000; Kristau egutegian/ 1378-1379; egutegi musulmanean/ 2542-2543; egutegi budistan) Hau da bidaiaien pribilegioa..., bidaia berean urte desberdinak bizi ahal izatea.

*Budismoaren uraren garrantzia aipatzen du Enekok, ospakizunei dagokielarik.

-Hemendik aurrerako Enekoren asmoa: Vietnam?, Kanbodia?, Txina?, Mongolia, Pekin, Japon...?

Hau da Enekoren inguruan dakigun azkena... Hortaz, auskalo non dagoen egun!!!

E.B.Z.



ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

Ray-Ban gaur egungo begiradak.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

TURISMO NATURALA. ARABAKO FORU ALDUNDIA.

Arabako Parke Naturalak

Arabak lurraldea bezain aberatsa eta anitza den ondare kulturala du herrialdeko herri, baso eta mendietan zehar.

Geografikoki hiru zati bereizi behar dira Araban: batetik, Gipuzkoa eta Bizkaiko mugaraino hedatzen den iparraldeko aldea; bestetik, berdea nagusia duen Lautada zabala; eta hirugarrenik, hegoaldeko koloreak dituen Errioxa emankorra. Paisajea eta eguraldiak baldintzatuta berezko abeltaldea du alderdi bakoitzak.

Gorbeia, Urkiola, Izki eta Valderejoko parke natural arabarrak dira horretaz guztiaz goatzeko lekurik aproposenak. Gizakiaren eraginez gehiegi aldatu ez diren esparruak dira lau parkeak: baso, zidor, mendi, kobazulo eta erreka eder eta ondo zainduta baina hainbat ibilbide egin daitezke oinez, txirringa edota zaldiz ere. Parke Naturalen kudeaketan ingurua babestu eta garatzeko lanak azterketa zientifiko eta aisialdiarekin uztartzeko ahalegina egin dute erakundeek. Arabako parke guztiek natura ezagutzeko egitarauak eta baliabideak dituzte.

Gorbeia:

- ♦ 20.016 ha.dun parkea da. Euskal Herrian dagoen zabalena.
- ♦ Gorbeian (1.481 m.) euskal mendizale guztiek ezagutzen duten 18 metroko gurutze handia da parkearen ikur nagusia.
- ♦ Landareei dagokienez sarritan elurrez estalita agertzen diren harizti eta pagadiak dira nagusi, eta animaliei dagokielarik, oreina da parkearen jaun eta jabe.
- ♦ Gurutzerainoko ibilbidea ez da parkeak eskaintzen duen aukera bakarra, Berretin edo Atxabalerako igorak edota Mairulegorreta kobazuloari bisita ere aipagarriak dira.

Izki:

- ♦ Trebiñotik hurbil, Arabako Mendialdearen parterik ezezagunenean dago Izki. Baso oparo eta sakonak dira parke honen ezaugarriak nagusia, ez baita ahaztu behar Izkin bertan dagoela 3.500 ha.ko harizti bat, Europako handiena.
- ♦ Basoetan pagadi, gaztainondo eta harizti itzelekin elkarbizitzan abeltalde aberatsa aurki daiteke: igaraba ederrak, mendiko katua eta, batez ere, basurde ugari.
- ♦ Bertaratutakoek basoetan zehar ibilaldiak egiteaz gain, mendirako zaletasuna dutenek Kapilduirainoko igoeran saia daitezke, Korreseko haizpitarteko bide ederraren aukera baztertu gabe.

Urkiola:

- ♦ Araba (%15) eta Bizkaiko (%85) lurraldeetan dago Urkiola eta EAEko parke naturalik zaharrena da, berak lortu baitzuen izendapena beste guztiak baino lehen.
- ♦ Paisaje ederra eskaintzen du arabarrok Durangalderako bidean zehar katzen dugun gunek, baina euskaldunontzat historikoki duen garrantzia ez da ahaztu behar: Anboton dago Marik dituen zazpi bizilekuetako bat, kuttunena; hortik "Anbotoko Mari" izena.
- ♦ Ibilbideei dagokienez, Anboton bera da mendizaleentzako punturik erakargarriena, betiere eguraldia alde dugula joan behar dela gogoratuta, baina Orixolerako igoera ere aukera ederra da.

Valderejo:

- ♦ Burgoserako bidean dagoen Valderejoren paisajea harria da nagusi, 1.000 metrotik gorako lau mendietako tontorrek erakusten dutenez (Vallegrull,...).
- ♦ 15 km.ko luzera duen Puron ibaiak iparretik hegora zeharkatzen du parkea.
- ♦ Euskal Herrian dagoen sai talderik handiena Vallegrull mendian dago.
- ♦ Parkean bederatzi zidor daude; txikienak 3,5 km. ditu eta luzeenak 12. Horretaz gain, Lalastra inguruan osteratxoak egiteko bideak daude, betiere mendirako aukera ahaztu gabe.

Araba,
urratsez urrats.

ALAVA ^{aktiva}
ARABA ^{gorago}



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

www.alava.net

hamaika kontu

KROAZIA 4890000 biztanle dituen errepublikak 84,6 bizilagun/km² eta 56538 Km² dauka. Hiriburua Zagreb. Hizkuntza ofiziala, kroaziera. Mugak: iparraldean Eslovenia eta Hungaria daude, Mendebaldean eta Hegoaldean Bosnia-Herzegobina eta ekialdean Yugoslabia. Udan tenperatura ona dago. Bertara joateko pasaportearen baina ez da behar. Txanpon ofiziala kuna da. Kuna batek 22 pezeta inguru balio du. Txanpon trukaketa banketxeetan baino ezin da egin. American Express, Visa, Eurocard, Mastercard eta Diners Club kreditu txartelak erabil daitezke.



ESLOBENIAK 2051000 biztanle dauka, 20251 km². Hizkuntzak: Eslobeniera, Kroaziera, Serbiera, Alemanera, Ingelesa eta Italiara. Hiriburua: Ljubijana. Txanpona: tolarra. Tolarra= 0,83 pzta Trukea banketxeetan egin. Kreditu-txartelak balio dute jatetxe eta hoteletan. Kreditu txartelak leku gutxitan erabil daitezke. Beraz, diruz ordaintzen da. Mugak: Italia, Austria, Kroazia Bertara joateko pasaportearen baina ez da behar.



EUSKARA JALGI HADI MUNDURA

Munduan kultura eta hizkuntza asko daude. Haiek ezagutzea eta gureak ezagutaraztea aberasgarria da oso.

Helburu honekin **GASTEIZKO BAGARE EUSKAL TOKIAK**, Etxepareren esaldia errealitate bihurtu dadin, Abuztuaren 12tik 26ra 15 eguneko bidaia zoragarria atondu du.

Kroazia eta Eslobenia bisitatuko ditugu.

BAGAREkideok ahalik eta txangorik merkeena prestatzen saiatu gara, dirua oztoporik izan ez dadin. Hau dela eta, bidaia autobusez egin eta kanpinetan lo egingo dugu.

Bidaia honetara Euskal Herriko edozein euskaldun etor daiteke. Baldintza bakarra euskaraz jardutea da.

TXANGOAREN HELBURUAK:

- Europako bi herri eta kultura ezagutzea
- Gureak ezagutaraztea
- Euskaraz egitea (gida euskalduna edukiko dugu)
- Euskaldunok elkar ezagutzen laguntzea
- Ondo pasatzea

Bidaia aurrera atera dadin 30 pertsona guxienez joan behar dira. Apuntatzeko azken eguna: ekainaren 19a

Prezioak: Autobusaren prezioa zehazteke badago ere 37000 pezetakoa izan daiteke. Honi kanpinetan gastatu beharreko dirua gehitu behar

zaio. Kroazia eta Eslobeniako kanpinen batez besteko prezioa: 800 pezeta/pertsonako. Denda: 1000 pezeta. Prezio hauek markoetan

egoten badira ere, bertoko txanponetan paga daiteke. Oharra: prezio hauek behin-behinekoak dira.

Informazioa gehiago: BAGARE EUSKAL TOKIA, Aiztogile 62 • 01001 GASTEIZ • Tfnoa: 945251084
Apuntatu nahi duenak BAGAREa hots egin dezake edota bertatik pasa daiteke. ANIMA ZAITEZ



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA



"Biraka dabilen harria, sortzen ari den herria"

Geu Elkarteak, Topaguneko -Euskara elkarte eta herri aldizkariaren topagunea- bazkidea den momentutik, bertatik antolatzen diren proiektuak bereak egiten ditu.

Kasu honetan, Kultur Errota Gasteiza ekarriko du Elkarteak, Euskal Herrian zehar oso ondo ibili dela ikusi eta gero. Momentuz 45 euskara eta kultur elkarteek hartzen du parte inizatiba honetan Euskal Herri osoan, GEU barne, noski.

KULTUR ERROTA euskal kultura formato txikian sustatzeko antolatu kultur zirkuitua da, honako helburu hauek erdietsi asmoarekin: herritar guztien topagune, adierazpen artistiko ez ohikoak, harrobi lana eta euskarazko kultur dinamika bultzatzea, besteak beste.

Hau dela eta, maiatzetik aurrera (1. emanaldia maiatzaren 23an izan zen **Bi Luma** taldearekin) Geu Elkarteak kontzertu bat antolatuko du hilero...

Beraz, adi egon eta anima zaitetzte!

Hona hemen kulturgileen parrila:

Jabier Muguruza, Urbeltzen dantza ganbara, Beñat Aixiari eta Mixel Etxekopar, Naia, Ines Robles, Bordaxuri, Bide Ertzean, Xabier Amuriza, Amaia Zubiria, Ander Lipus, Morau, Arima Beltza, Bi Luma, Koldo Amestoy, Itzal antzerkia, Anje Duhalde, Mikel Telleria, Igelaren Banda, Caroline Philips eta Mixel Ducau, Xabier Montoia eta Txuma Murugarren.

kultur
biraka dabilen harria



sortzen ari den herria
errota

KULTUR ERROTA GASTEIZ

Ekainak 3:

**Urbeltzen Dantza
Ganbara.
Euskal Jaian.
Alde Zaharra.**

Ekainak 30:

**'Morau' kantautorea
Gaztetxean.
22:00ak aldera**

***GEU Elkartearen beste eskaintza batzuk:** 

- KANTU-AFARIA (BAGARE EUSKAL TOKIAREKIN BATERA).

Ekainak 16, Bagaren bertan, Trikioko-k lagunduta...

Prezioa: 2000 pta. inguru

(Txartelak: Bagaren – 945 25 10 84 / GEUn 945 22 21 53 - Edurne)

MIKO
izozkiak

J A T E T X E A
Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

bar • restaurante
albéniz
Errege Atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

HAUTAPROBA, IKASLEEN KEZKA

Ikastola, eskola eta institutuko azkenengo kurtsoan dauden ikasle horiek bi azterketa mota dauzkate aurrean: kurtsoari dagozkion examinak egiteaz gain, aurten beste proba bat dute gain-gainean, selektibitatea alegia. Egoera honetan dauden ikasle batzuen iritziak dira honako hauek.

- 1.-Hurrengo urtean zer ikastea gustatuko litzaizuke?
- 2.-Zer deritzozu selektibitateari? Ze eragin izan dezake honek zure aukeraketan?



Naiara Aginako. Ikaslea
1.-Niri E.H.Un Telekomunikabideetako Injinerutza egitea gustatuko litzaidake.
2.-Selektibitateari beldur handia diot, batezbesteko nota jaitsi diezazuke eta. Hala gertatzen bada, beste karrera bat aukeratu beharko nuke.



Paula Garbizu. Ikaslea
1.-Zuzenbidea egin nahi nuke.
2.-Selektibitatea ez egotea gustatuko litzaidake: hiru egun besterik ez daude azterketa guztiak egiteko, ez da bidezkoa. Nik oraindik ez dut erabaki unibertsitate pribatu edo publikora joango naizen; lehenengoaren kasuan selektibitateko nota ez da garrantzizkoa, baina bigarrenaren kasuan, ordea, nahitaezkoa.



Itziar Grajales. Ikaslea
1.-Enpresa Zuzenbide eta Administrazioa egiteko asmoa dut Madrilén.
2.-Selektibitatea oztopo bat baino ez da. Niri zorionez unibertsitatean ez didate selektibitateko nota begiratzen, hori dela eta lasaiago joango naiz.



Miren Fz. de Betoño. Ikaslea
1.-Eskoriatzako Unibertsitatearen erantzunaren zain nago.
2.-Selektibitateak ez du zentzurik, lortzen duen gauza bakarra ikasleak urduri jartzea baita. Nik momentuz badut nahiko nota nahi dudana ikasteko, baina pentsa dezagun, zer egin beharko dut nik selektibitatearen erruz nota jaitsi eta nik nahi dudana egin ezin badezaket? Ez da batere justua.



Amaia Mugida. Ikaslea
1.-Hurrengo urtean atzerrira joateko asmoa dut, ingelesa ikasteko.
2.-Ez du ezertarako balio, ezin baitu inolaz ere kurtso osoan egindako esfortzua neurtu. Dena azterketa batean jokatzeko duzu. Hurrengo urtera begira lan handia egin beharko dut orain arte dudana batezbesteko nota jaitsi ez dadin.



Oihane Ibarrola. Ikaslea
1.-Injinerutza Kimikorako eskatu dut tokia E.H.Un.
2.-Selektibitatean kurtso osoa karta bakar batera jokatzeko dugu, eta hori ez da bidezkoa. Beldur naiz selektibitatea amaitu eta gero betidanik egin nahi izan dudana ezin badezaket egin.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

"LA POLLA sortu genuen Agurainen aspertzen ginelako"

Bera Evaristo da. La Polla taldeko abeslaria. 1979ko abenduan Agurainen sortutako taldearen arima eta ahotsa dugu.

Tipo jatorra eta bitxia da, eta nahiz eta elkarrizketak oso gustuko izan ez, GEUK egindako gonbitea onartu eta berarekin aritu ginen

solasean. Gaur egungo egoera politikoa, gazteen egoera, bere nahi eta buruhaustea..., horretaz guztiaz mintzatu ginen berarekin.

Baina baita "Toda la puta vida igual" La Pollaren disko berriaren inguruan ere. Denborak aldatu ez duen La Pollako abeslariak kontu asko eta interes handikoak erran zizkigun.



• 20 urte daramatza La Pollak taula gainean. Beste talde asko aldatu badira ere, zuek ez. Zer dela eta?

- Beste ezer jotzen ez dakigulako. Gu jotzen hasi ginen Agurainen aspertzen ginelako..., orduan hippien garaia zen baina gu gazteegiak ginen horretarako, eta ez genion horri jarraitu. Beraz, alde batetik hori, eta bestetik, Aguraingoak izateak eragin nabarmena izan du horrenbeste denbora irauteko taldeak. Gasteizen bizi izan bagina, adibidez, ez ginatekeen kide berberak elkartuko, ez eta ibilbide bera jarraituko ere.

• Baina esfortzu berezirik egin behar al da urte haue-tan guztietan zehar ez aldatzeko?

- Ez, guk ez dugu ezer berezirik egin, ez zaigu deus kostatu. Gainera sekula ez dugu ibili behar izan kontzertuen bila, beti guregana jo baitute, gu mugitu gabe. Agian gaizki ohitu gara, eta deitzeari uzten dioten egunean, ea zer egiten dugun! Baina orduan ikusiko dugu.

• Desberdintasunik nabaritzen al du Evaristok duela 20 urte taldearen jarraitzaile zirenak eta egungoen



RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

- "Nik uste dut nahikoa bizi izan dudala ohartzeko herri hau desberdina dela"

artean?

-. Agian, garai hartakoak gure edadekoak zirela eta egungoek gu hasi ginen adin bera dutela. Gainera uste dut gu baino okerrago bizi direla egungo gazteak.

• Zergatik, bada?

-. Gaur egun askosaz aukera gutxiago dituztelako. Lehen 16-18 urterekin jendeak etxetik alde egin zezakeen. Orain, ordea, 30 urterekin gurasoen etxean jarraitzen duzu. Lana ere oso gaizki dago... Egoerak okerrera egin du.

"EZ DA EZER ALDATU"

• Nola ikusten duzu gaur egun bizi dugun egoera politikoa?

-. Nik ez dut ezer sinesten. Argi asko erakutsi da Franco hil ondoren Juan Carlos jarri zela, eta Francorekin zeudenak gero UCDn, PPn... egon direla, daudela... Arrastoari jarraituz gero ohartzen zara ganorabako berberak direla. Ez da ezer aldatu, izena baino ez. Demokrazia eta askatasuna bezalako hitzez jabetu dira eta kutxa batean sartu dituzte eurentzat soilik. Eta beraien kontra dagoen edonork, askatasun eta demokrazia horren kontra egiten ei du.

• Eta Euskal Herriari dagokionez?

-. Gauzak ez daude ondo, baina behintzat hauteskundeetan ikusten da badagoela biztanlegoaren zati handi bat alde batekoa dena. Hala ere, euskal burgesia ere kontuan hartzekoa da, haiei poltsikoa herria baino dezente gehiago inporta zaie eta.

• Eta Euskal Herriko gazteria, gero eta burgesago bilakatzen ari al da?

-. Egungo gazteen egoera ez da samurra, baina horretan eragin handia du jaso duten heziketak. Izan ere, ni gaztea nintzenean adibidez, ez genuen telebistatik etxean. Eta orain nire alabak jaio zenetik ezagutu du telebista. Hasiera-hasieratik guztia manipulaturia dago erabat, eta ez da batere samurra burua "esnatzea".

• Zu nahikoa inplikaturia zaude kontu politikoetan, ezta?

-. Izan ere duela gutxi abian jarritako Batasuna prozesuaren sinatzaileetako bat zara.

Ni Galizian jaioa naiz eta 7 hilabete nituela etorri nintzen hona. Baina nik uste dut nahikoa bizi izan dudala ohartzeko herri hau desberdina dela. Hemen banatu nahi duen jendea dago eta hori argi ikusten da. Horrez

gain, metodoak, estrategiak eta abar... Nik ez dut ezer ulertzen horretaz.

AZKEN DISKOAREN

GORA-BEHERAK

• Duela gutxi Hego

Amerikan bira egin duzue zuen azken diskoa aurkeztuz, zer moduz joan zaizue?

-. Jendearekin ondo. Antolatzaileekin ez hain ondo. Gure izenean guk eskatu ez genituen gauzak eskatzen zituzten -5 izarretako hotelak, edari bereziak...-, eta horrelakoak egin zizkiguten. Gero arazo batzuk izan genituen Argentinan, jende guztia ez baitzen sartzen lokalean eta polizierekin arazoak egon ziren. Gauza bera gertatu zen Txilen, jo genuen tabernatik irten eta polizia atzetik, betiko moduan. Baita Uruguain

ere, leku handia zen, anfiteatro baten antzera, eta goialdean hesi batzuk zeuden, eta sarrerarik ez zuten zenbait lagun han zeuden kontzertua entzuten, eta polizia agertu zen eta handik bota zituen. Puertorrikon, aldiz, ez zen ezer gertatu.

• Zenbat denbora eman duzue Hego Amerikan?

-. 13-14 bat egun. Gainera arazoak izan genituen hegazkinarekin, eta denbora gehiago egon behar izan genuen han. Baina bestela jendearekin eta, oso ondo... Argentinan jende mordo ezagutu dugu, eta Txilen, esaterako, kontzer-

**"Euskal Herrian
musika aldetik
emakumez
osatutako taldeak fal-
tan
botatzen ditut "**

**"...Demokrazia eta
askatasuna bezalako
hitzez jabetu dira..."**

tuan "kolatu" ziren batzuekin aritu ginen solasean, ja, ja!! Gainera han nahikotxo ezagutzen gaituzte...

• Zer moduz doaz azken diskoaren salmentak?

-. Diskoaren banatzaileak aurreko disketxeoak baino gutxiago aritu dira gezurretan gurekin. Izan ere, lehen genituenak gezurrak baino ez zituzten esaten: esaten ziguten saltzen genuena eta batek baino gehiagok gutaz barre egiten zuen, zifrak handitzen baitzituzten.

• Zer dela eta "Toda la puta vida igual"

diskoaren izenburua?



GUSTUKO 10 MUSIKA TALDE

**RIP, CICATRIZ,
SEX PISTOLS, DEAD BOYS,
BOYS, DAMNED, CLASH,
LOS RAMONES,
DEAD KENNEDYS eta
LA BANDA TRAPERA DEL RIO.**

FITXA TEKNIKOA

- ✓ **Guillarey-n (Pontevedran) jaio zen 1960.eko ekainaren 13an. Baina 7 hil bete zituenean Agurainera joan zen bizitzera.**
- ✓ **Duela 7 urtetik hona Oñatin bizi da.**
- ✓ **Alaba bat dauka eta bera ei da bere euskara irakaslerik onena.**
- ✓ **La Pollarekin emandako lehen kontzertua Agurainen izan zen 1000 pertsona ingururen aurrean.**
- ✓ **Txikitan oso berezia omen zen eta "denetarako erantzuna" zuen.**
- ✓ **Egunero 7 ordu egoten da (La Pollako kideekin batera) lokalean. Horietatik 3 baino ez dute igarotzen entseiatzen.**

-. Kanta guztien artean izenburu hori izan zelako gehien gustatu zitzaiguna. Ez du bestelako arrazoirik. Sekula ez zaigu gehiegirik axola izan diskoaren izenburua, ez eta kanten tituluak ere, diotena baizik. Guk, adibidez, sekula ez ditugu oroitzen abestien izenburuak, kontzertuetan izengoitiak-edo darabiltzagu jakiteko zein abesti jo behar dugun.

• Kantak zeren inguruan dira? Zeintzuk gai jorratzen dituzue?

-. Guk betikoaz hitz egiten dugu, alegia, batzuk goian daudela eta beste batzuk behean.

• Baduzue abesti baten bertsioa, "Sagarra, manzana, Ikatza, carbón....", zer dela eta abesti hori?

-. Beti txapa sartzen ziguten euskaraz abes genezan, eta nik alaba txiki bat daukadanez eta Takolo sarritan entzun behar izaten dudanez, eta nola nire euskara maila ez den oso altua, ba... nik abesti hori lasai asko abes



**"Kañamoz
egindako
produktuak"**

Errementari kalea, 38 behea
01001 GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 264 643

dezaket. Euskararen lehen irakaskuntza bezala egin dugu kanta horren moldaketa. Jende askok galdegin dit abestiaren esanahiaz..., baina ez dauka misteriorik. Zer egin behar genuen? Benito Lertxundiren bertsio bat, ala? Ba, ez. Telebistako pailazoen bertsioa egin dugu.

• **Nola ikusten duzu Euskal Herriko egungo musikaren egoera?**

-. Ez dut batere kontrolatzen gai hori. Kontzertu askotan egon naiz, baina ez naiz inoiz fijatu nork jotzen zuen. Horretaz sekula ez dut ideiarik eduki. Interesatu zaidan musika baino ez dut entzuten.

• **Euskal Herrian musika aldetik zerbait faltan botatzen al duzu?**

-. Soilik emakumez osatutako taldeak. Oso gutxi daude eta gehiago izan beharko lirateke.

• **Eta zu, ez al zaude nekatuta horrenbeste urtez musika munduan?**

-. Ez, inolaz ere ez. Nekatzen naizenean hau utzi eta beste zerbaiti ekingo diot. Taldea sortu baino lehen taldeko kideek bizitza bilatu genuen bezala, gero gauza bera egingo genuke. Bien bitartean egin beharrekoa egiten dugula uste dut.



ZIRT EDO ZART

• **Liburu bat:** Jacob, XIX. mendeko anarkista frantses bat zen.

• **Leku bat:** Sorginetxeko Dolmena, Agurainen.

• **Kolore bat:** Puta ideiarik ez.

• **Janari bat:** Letxua eta baratxurizko entsalada eta ogi integrala.

• **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Mundua injustiziaz beteta egoteak eta botereak.

• **Zure azken oporrak?**

Bidaiatzen ez dudanean. Lasai nagoenean, alegia.

• **Zein da egun duzun ardurarik handiena?** Heriotzaren ondoren zer dagoen jakitea.

• **Esan daitekeen ametsik?**

Ez dut gustuko ametsak esatea.

• **Zure azken desilusioa?**

Bizitza oso ondo doakit, egia esan.

• **Elkarrizketa hau bukatutakoan zer egingo duzu?**

Kotxea hartu eta Agurainera joan entseiatzera.

UDABERRIA elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004



Olatuen energia:

gero eta hurbilago

Itsaso zakarreko egun batean olatuak kostaldearen aurka apar eta bitsetan lehertzen ikustea aski da olatuek energia itzela dutela ohartzeko. Badago energia horretaz baliatzerik? Egia esan, orain arte olatuen energia benetan erabiltzen duten bakarrak surfariak dira, baina azken urteotan prototipoak egiten ari dira eta, badirudi, errentagarritasunaren muga gero eta hurbilago dagoela.

Olatuen energiaren arloko ikerketak 1970eko hamarkadan hasi ziren, petrolioaren krisiaren ondoren. Helburua olatuen energia energia elektriko bihurtzea eta bihurtze hori ekonomikoki errentagarria izatea da, komertzialki ustiatu ahal izateko. Eta harritzekoa bada ere, arlo honetan estatubatuarrak ez dabilta puntan; europarrak eta japoniarrak idra aurreratuenak.

OLATU-BIHURGAILUAK

Olatuen energia zinetiko eta potentziala energia elektriko bihurtzeko doze-na inguru sistema asmatu dira orain arte: olatu-bihurgailuak dira, finkoak zein flotagarriak, itsas hondotan ainguratuak zein kostaldean finkatuak. Itsaso zabalean olatuen energia 3-8 aldiz handiagoa da kostaldean baino, baina handik energia elektrikoa lehorrean eramatea oso garestia da. Horregatik, asmatu diren sistema gehienak kostaldean kokatzeko-ak dira.

Olatuaren energia energia erabilgarri bilakatzeko, higidura mekaniko edo fluido baten presio bihurtu behar da lehenik, ondoren energia elektriko bihurtu ahal izateko. Asmatutako lehenengo sistemetakoa "Salter ahatea" da, 1970. urtean Edinburgoko Unibertsitateko Stephen Salter irakasleak asmatua. Eite bereziko flotagailu-sorta batez osatuta dago eta flotagailuak itsas hondotan zurkaiztutako ardatz baten inguruan gora eta behera ibil daitezke. Olatu erasotzaileen aurrea aurre kokatuta, olatuak flotagailua azpialdetik gora bultzatzen du eta, olatua iragan ondoren, flotagailuak behera egiten du hasierako posizioa. Flotagailuek higidura hori

ardatzari transmititzen diote eta, engranje bidez biraketa-higidura bilakarazita, sorgailu elektrikoak higiarazteko erabiltzen da. Sistema mekanikoaren orde, flotagailuen balantza-higidura fluido bat konprimitzeko erabil daiteke, gero fluido hori turbina batera injektatuta turbina birarazi eta honek sorgailu elektrikoak biraraz dezan.

Dena den, orain arte gehien garatu den sistema ur-zutabe osztizaillea da. Sistemaren oinarria honako hau da: hodi bertikal bat beheko zatia uretan sartuta duela jarri eta hodia geldirik egon dadin finkatu egiten bada, olatuen joan-etorriarekin hodiaren barnean dagoen ura -ur-zutabea- gora eta behera ibiliko da. Hodi edukitzailearen goialdea itxi egiten bada, haren barnean dagoen airea konprimatu egingo du urak igotzean eta deskonprimatu edo zabaldu egingo da urak behera egiten duenean. Aire, beraz, gatibu dago hodian. Aire-ganbera horretan zirritu bat eginez gero, airea hortik indarrez irten eta sartuko da ura igotzen eta jaisten denean. Zirritu horretan turbina jarrita, aireak higiaraziko du eta honek sorgailu elektrikoak. Horrela energia elektrikoak lor daiteke.

Horrelako olatu-bihurgailuak kostaldean ezar daitezke, itsas labarretan adibidez. Itsaso zabalean lan egiten duten

sistemen aldean badute abantaila: sorgailu elektrikoak, turbina eta ekipo elektrikoak lehorrean daude eta, beraz, konpontze- eta mantenimendu-lanak askoz merkeagoak dira. Bestalde, ingurugiroaren gaineko eragina kontuan hartu beharrekoa da, paisaia inpaktua besteak beste.

ETORKIZUNA?

Saio ugari egin da orain arte olatuen energia gobernatu eta erabili ahal izateko, baina ez da oraino sistema ekonomikoki errentagarriarik lortu. Hala ere, azken 25 urteotan aurreraren teknologiko larriak izan dira eta errentagarritasun ekonomikoaren ateetara iritsita daude. Gainera, gaur egun energia lortzeko sistemen errentagarritasun ekonomikoa kalkulatzeko orduan ez da ingurugiro-inpaktuaren kostua kontuan hartzen. Hori energiaren kostuan barneratuz gero, energi iturri berriztagarriak orain diren baino askoz ere errentagarriago bihurtuko liratek. Hortaz, orain merkatuan nekez lehia daitezkeen energi iturri horiek, olatuen energia kasu, bihar edo etzi teknologiaren aurrerapenari esker edo energia ez berriztagarrien prezio-igoeraren ondorioz, onetsiak eta preziatuak izango dira.



Euskharan taldearen lorpena: Helduentzako D eredua

Helduentzako Heziketa Iraunkorreko (HHI) D eredua martxan jarriko da Gasteiz eta Laudion datorren irailean. Euskharan elkarte euskaltzaleak sorreratik zuen helburuetako bat bete egin da horrela. Aurrematrikula maiatzaren bigarren hamabostaldian egin da eta eskolak Candido Ruiz de Garibai Ikastetxean (Zaramaga auzoan) emango dira Gasteizen, eta HHIren egoitzan Aiarako hiriburuan.

Gasteizen euskal ereduko HHI ikastetxe bat -edo euskal adar bat -zabaltzeko eskaera bazegoela aldarrikatu izan du Euskharan elkarteak. Definizioz hiru helburu dituzte helduen neurria egindako eskola berezi hauek: batetik, alfabetatzea, bigarrenez, haur eta gaztetan ikasteko aukerarik izan ez duten pertsonak arlo guztietan nor bere kabuz garatu ahal izatea ahalbidetzea; eta azkenik, sakontze fase bat eskaintzea.

Bigarren Hezkuntzako Graduatua, batez ere-. Beraz, HHIko eskolek helburu instrumentala, soziokulturala eta lanerakoa bete behar dute-

la esan daiteke, baina euskal adar-raren kasuan hutsune bat betetzera ere badatorrela esan behar da, legeak bi hizkuntza ofizialetan ikasteko aukera egon behar dela baitio.

Gasteizko iparraldeko auzoetan sortu taldearen ustez hiru taldetan

Legeak bi hizkuntza ofizialetan ikasteko aukera egon behar dela dio

banan daitezke eskola hauetara hurbilduko diren lagunak: alfabetatu gabeak -"eskola porrota" deitu ohi den hori jasan dutenak-, heziketa prozesua amaitu aurretik lan mundura sartu direnak eta urteekin ikasteko gogoia berreskuratu dutenak. Bestetik, ez da euskaldun zaharren taldea ahaztu behar, inoiz euskara ikasteko aukerarik izan ez dutenak eta batueraz oso ondo moldatzen ez direnak.

Jakiteke dago oraindik Hezkun-



tza Sailak zein modulu zabalduko dituen irailetik aurrera Audio eta Gasteizen, eta aurrematrikulan izena eman dutenen nahiak eta kopurua jakin aurretik zaila izango da datu hau zehaztea.

***Euskharan taldeak bultzatu ekimen hau honako zentro hauek aurkeztu dute: Koldo Mitxelena, Aranzabela Ikastola, Odon de Apraiz Ikastola, Lopez de Gereñu Eskola, Gasteizko IKA, Gasteizko AEK eta Zazpigarren Alaba Auzo Elkarte.**



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

**Ka
La
mu
TABERNA**

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5
Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKOA



EZETZ SARTU !!!

➤ **Helburuak:** ✓ Trebetasuna lantzea.

✓ Material merkearekin jolas bat egiteko aukera izatea.

✓ Eta noski ... ONDO PASATZEA !!!

➤ **Adina:** 5-6 urtetik aurrera. ➤ **Zailtasuna:** Gutxi.

Pausoak:

- ① Botilaren behealdea moztu, alde zabalenetik.
- ② Botila zuen gustura margotu.
- ③ Ur botilaren tapoia zulatu jostorratz edo guraize batzuekin.
- ④ Artilea zulotik sartu eta korapilo bat egin (tapoi barrutik) tapoitik irten ez dadin.
- ⑤ Edozein paper motarekin pilota bat egin eta ondoren zeloz inguratu.
- ⑥ Artilearen mutur bat hartu eta pilotan pegatu zela erabiliz.

Saskibaloia gustatzen zaizu?

Ea pilota botilan sartzeko gai zaren!;

Orain daukazu aukera jolas honekin
dibertitzeko !;!;



PLISTI-PLASTA

ASTI LIBREA EUSKARAZ!!!

TELEFONOA: 656739030



Lehiaketa

txiki park



Domingo Beltran kalea, 53
01012 Gasteiz - Tnoa. 945 20 00 02



LUCIA - 8 urte

"Aurtengo udan ziurrenik San Vicentera joango naiz nire izebarekin. Han lagun talde bat daukat eta egun osoa kalean pasatzen dugu. Dena den, udatik gustatzen ez zaidana etxean geratzea da; horretarako badauzkagu egun euritsu eta hotz handia neguan".



IRATI - 11 urte

"Uda honetan, azkenengoetan bezala, Ondategin egongo naiz nire koadrilarekin jolasten. Horrez gain, astebetean nire gurasoengandik alde egin eta Hondarribiko udalekuetan izango naiz".

UDAKO

PLANAK



JANIRE - 10 urte

"Urtero bezala Peñalver-en izango naiz uda honetan eta bertan "stop" jokoan jolastea gogoko dut. Abuztuko lehenengo astean herria utzi eta Gasteizera itzuliko naiz festa giroa bizitzeko".



NAHIA - 10 urte

"Oporrak Galizian igaroko ditut nire aita eta osabarekin. Han, igerilekuan, nire lagunekin gozatzeko aukera izango dut".
Nahiak ez du beroa jasaten, hortaz, udaran ahal den moduan moldatu behar da...

Testua: Itziar Uriarte Fdz. de Trokoniz • Argazkiak: Edorta Sanz

★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★
Ez gehiago itxaron, egin zaitetz gure klubeko bazkide ★

Maiatzeko zozketan ez du inork erantzuna asmatu... Beraz, ekainean jarraitzen dugu galdera berarekin, baina hona hemen "pista bat", ea oraingoan...

SARIA: Txiki Park-erako 2 sarrera ★

EKAINEKO galdera:

Zenbat urte bizi daiteke dortoka bat gehienez? ★

Bidali erantzuna lehenbailehen...gure helbidera (4. orrialdean) Izena eta Telefonoa zehaztu ★

Pista: 100 baino gehiago... ★

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

iturrieta

Sagardotegia



**Ekainetik aurrera adi UDAKO
PROGRAMAZIOARI!!!**

**Arraga auzoa.
tfnoa: 945 44 53 85
ARAMAIO**

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida 35 – Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

"Musika entzuten ikasi nuen nik euskara"

ELOY

Fernandez
de Garaialde
García de
Falces



-1954ko uztailaren 28an Gasteizen jaioa da, eta nahiz eta bere zainetan Nafarroako odola izan, gurasoak Falcesekoak baititu, gasteiztarizat du bere burua. Ezkonduta dago eta seme bat du. Magisteritza ikasi zuen orain dela hogeita bost urte, baita euskara ere. "Ordizian hasi nintzen euskaraz hitz egiten, han izan nuen-eta nire lehenengo lanpostua". Ondoren, Dulantzin hamai-ka urtez irakasle nahiz zuzendari lanari ekin zion. Gaur egun, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Teknologia Berrien Aholkularitzan lanean ari da.

-Bestetik, zaletasunak eta lana bereiztu ordez biak nahastu egi-ten dituela aipatzen du Eloyk: "informatika eta kirola ditut gustu-ko, orduak eman ditzaket ordenagailu baten aurrean aspertu gabe". Kirolari dagokionez, saskibaloia talde ezberdinetako entrenatzailea izan da orain dela bi urte arte. Berritsua eta alaia den gasteiztar honen zaletasunen artean abestea eta pianoa eta kitarra jotzea ere badaude.

• **Duzun biziorik handiena?** Adin hone-kin... Jatea, baita kirola egitea ere.

• **Bertutea?** Nik esatea ere... Esan dezaket nire lanean sinetsi dudala beti, hau da, Eskola Publikoaren oinarrietan sinesten dut eta hauek defendatzen ditut.

• **Zer eskatzen diozu bizitzari?** Gauza gutxi, osasuna eta denbora disfrutatzeko.

• **Zer eskatzen du herriak?** Askatasuna, bakea eta denon arteko elkarrikeria.

• **Jeniorik baduzu?** Bai, bai... Nafartar odola daukadanez askotan zaina puzten da, eta orduan beste pertsona bihurtzen naiz.

• **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Injustiziak eta, batez ere, orain munduan den konformismoak.

• **Geu Elkartea eta aldizkariaren berri-rik bai?** Bai, hasiera-hasieratik jasotzen dut aldizkaria.

• **Egunkariren bat?** Egunkaria, euskaraz irakurtzeko, eta besteak, ezta ireki ere...

• **Pelikula onen bat?** Ikusi dudan azkena, adibidez, Las Normas de la Casa de la Sidra.

• **Telebista programarik?** Telebista ez dut ia ikusten, gauetan bakarrik daukat astirik telebista pizteko... Orduan, gustukoe-nak... Periodistas eta Sorginen Laratza.

• **Gustuko aktoreren bat?** Robert de Niro, eta gure artekoak..., "Joselontxo"... Jose Ramon Soroiz, baita Goenkalen ager-tzen den edonor ere.

• **Jaki goxoren bat?** Barazkiak batez ere.

• **Zure gorputzaren atalik politena?** Ja, ja... Dudanik ere ez dut uste, ez dakit, egu-

nero ikusten dudalako..., agian aurpegia...

• **Txikitako oroitzapenik?** "Jueves de Lardero" delakoa, txikitako oroitzapenen artean bereziki hori izan dut betidanik. Gobeon egiten zenari buruz ari naiz, Goyako gozoki eta merengeak jaten genituen egun bakarra zen, irakaslearen etxean jaten genituen denon artean, egun izuga-rria zen hori.

• **Oporrak non eta zertarako?** Neguan eskiatzera joateko eta udan, berriz, Gasteizen edo Araban lasai-lasai egoteko, urtegiari adibidez. Eta inolaz ere ez kostal-dean.

• **Liburu gomendagarriren bat?** Erdaraz egiptologiari eta antropologiari buruzkoak gustatzen zaizkit, eta euskaraz oso ona iru-ditzen zaidan bat Peru Abarka da.

• **Idazleren bat?** Landa, Atxaga... Euskaldunen artean ia-ia denak. Kanpokoen artean, berriz, Reverte gusta-tzen zait, baina ez idazle bezala baizik eta kolumnista bezala, bere liburuak nahiko "flojoak" direla pentsatzen baitut.

• **Munduan dagoen denbora guztia iza-nez gero, non, zertarako?** Ingelesa ikasi-ko nuke, psikopedagogia ikasketetan sakonduko nuke eta informatikako hainbat programa ezagutu eta erabiliko nituzke.

• **Gasteizen biziko ez bazina non biziko zinateke?** Hemendik kanpo... Cariben, ze demontre! Eguraldi polita daukate han eta jendea oso jatorra da, hango jendeak ez ditu guk ditugun helburu berberak eta bizi-tza bizitzeko aprobetxatzen dute, lagune-

kin eta zaletasunekin gozatzen ematen duten denbora zenbat eta gehiago izan orduan eta hobe.

• **Gasteizek duen onena?** Jaso dugun azpiegitura, auzoena, Gizarte-etxeena, bide-gorriak, berdeguneak...

• **Txarrena?** Trafikoa, batez ere erdialdean dagoena.

• **Euskaraz bizi daiteke Gasteizen?** Bai, noski.

• **Zer nahiko zenuke jendeak esatea zu hil eta gero?** Jatorra eta hemengo gauze-kin, gure herriko gauzeekin, arduratsu izan-dako pertsona nintzela.

• **Zein duzu momentuko kezkarik han-diena?** Semearen geroa, berak nahi duena lortuko duen edo ez kezkatzen nau asko-tan, hemendik sei bat urtera zer-nolako gizona izango den ere pentsatzen dut.

• **Gustuko koloreren bat?** Edozein, esate baterako urdina eta berdea.

• **Musika talde gogokorik?** Asko, ni musikazale amorratua naiz. Musika entzu-ten ikasi nuen nik euskara, Oskorriekin, Ez Dok Hamairu taldearekin... Azken honetan Gorka Knörr, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo eta abar zeuden. Kantu horiekin hasi nintzen euskara ikas-ten, kantari horien diskografia osoa dut... Musika, letrak ikasita ditut, eta pianoan, kitaran jotzen ditut... Beraz, bai lagune-kin bai familiarekin bai lanekoekin egiten den edozein afaritan normala da nik kitarra eramatea eta abesten bukatzea.




1



8



10



12



14



2



3



4



5



6



7



9



11



13



15



16



17



18



19

Badok hogei!

1. Araba Euskaraz 81

- Olarizu. 81-IX-13
- 5.000 pertsona inguru
- Jaiak ez zuen jende gehi- gi bildu eta antolaketak lehen aldikoen hutsuneak izan omen zituen, baina ereindako haziak fruituak emango zituen.

2. Araba Euskaraz 82

- Mendizorrotza. 82-IX-19
- 6.000 partehartzaile

3. Araba Euskaraz 83

- Audio. 83-X-23
- 15.000 lagun
- Jaia baino egun batzuk lehenago bahitu Josean Lasa eta Joxi Zabala tolosarren egoerari buruzko kezka goibeldu zuen ospakizuna eta gazte biak askatzeko aldarrikapena Laudiora iritsi zen.

4. Araba Euskaraz 84

- Oion. 84-VII-22
- 10.000

5. Araba Euskaraz 85

- Agurain. 85-VI-6
- Espero baino jende gutxia- go bildu zuen Lautadan egin Araba Euskaraz honek. Egun euritsu eta hotzak jendea atzera bota zuela pentsa dai- teke.

6. Araba Euskaraz 86

- Amurrio. 86-V-25
- 20.000 lagun inguru

7. Araba Euskaraz 87

- Kanpezu. 87-V-17
- 15.000 lagun

8. Araba Euskaraz 88

- Izarra. 88-VI-12
- 24.000 partehartzaile inguru

- Abel Enbeita bertsolari eta euskaltzale nekaezina izan zen antolatzaileetako bat.

9. Araba Euskaraz 89

- Bastida. 89-VII-2
- 30.000 partehartzaile

10. Araba Euskaraz 90

- Abetxuko. 90-VI-10
- 30.000 lagun
- Gora-behera politikoak zirela eta, Ardanza lehenda- kariaren gobernuak bigarren mailako ordezkari bat bidali zuen Abetxukora eta horrek batzuen haserrea piztu zuen.

11. Araba Euskaraz 91

- Armentia. 91-VI-16
- 30.000 pertsona
- Izaskun Arrue, herrialdeko lehen ikastolako -Olabide- sortzailea omendu zuten antolatzaileek.

12. Araba Euskaraz 92

- Armentia. 92-VI-4
- la 50.000 lagun bildu ziren
- 92ko jaiak ere ez zuen Eusko Jaurlaritzaren orde- zkapenik izan, baina arratsal- dean Alaves-Badajoz futbol partidua ikustera etorri hain- bat eta hainbat estremadura- rrek bat egin zuten euskal- tzaleon jaiarekin.

13. Araba Euskaraz 93

- Audio. 93-VI-20
- 50.000 bat pertsona
- Aiarako lehen ikastolako andereñoek omenaldi beroa jaso zuten.

14. Araba Euskaraz 94

- La Puebla de Labarka. 94-VI-19
- 65.000 lagun

- "Non eta mugan" lelopean ospatu edizio hau bereziene- takoa izan zen; mugan izate- ak eta Errioxako ikastolen behar larriak inoiz baino jende gehiago erakarri zuen.
- Hertzainak musika taldea bildu zen berriro kontzertu bat emateko.

15. Araba Euskaraz 95

- Armentia. 95-VI-18
- 60.000
- Iñaki Zulaikak hartu zuen lehenengo Araba Euskaraz- eko bultzatzaileei emanda- ko oroigarria.

16. Araba Euskaraz 96

- Amurrio. 96-VI-16
- 60.000
- Hamar urte lehenagoko partehartzea bikoiztu zen Amurrian.

17. Araba Euskaraz 97

- Oion. 97-VI-15
- 40.000
- Bildutako diruak D eredu- ko DBH institutua ordain- tzen lagundu zuen. 98an hasi zen lanean zentrua.

18. Araba Euskaraz 98

- Araia. 98-VI-7
- 60.000 partehartzaile

19. Araba Euskaraz 99

- La Puebla de Labarka. 99-ekaina-20
- 60.000 lagun inguru
- Assa Ikastolak izan dituen zuzendari guztiei omenaldia egin zitzaizen.
- Ebro ibaian estropadak jokatu ziren...

eta...



ARABA EUSKARAZ

2000

LAUDIO

...20. edizioa.

ekainak 18

ERREKORRAK HAUSTERA!!!

Araba Euskaraz Laudion egin den bakoitzean -83an eta 93an- inoizko partehartzerik handiena izan du Arabako Ikastolen jaiak, Kaitin Allende koordinatzaileak gogoratu duenez. Beraz, ekainaren 18an inoiz baino jende gehiago biltzea espero dute Audio Ikastolako arduradunek. Helburu ekonomikorik, berriz, ez da ezarri: "Dirua ikastolan egin berri diren lanak ordaintzeko izango da eta datorrena, ongi etorria", adierazi du Kaitinek.

5 bat kilometroko ibilbidea aurkituko dute Aiarako herririk handienara hurbiltzen direnek. Abiapuntua tren geltokia da, "jendea trenetara etortzea espero dugu, horretarako aukera ona dagoelako". Geltokitik abiatuta Lateorro auzoan barna doa ibilbidea, ibaia-ren eskumaldean, jaia

horren ezaguna ez den herriaren zatira eraman asmoz. Eta Lateorro atzean utzita, herrira eta eguneko protagonista nagusira, ikastolara. Ikastola bisitatu eta ikusi eta gero Lamusa parke handirako norabidea hartuko du ibilbidea. Bidean zehar, artisauak eta txistulariak, gunetan, haurrentzako jolasak eta pailazoak,

**"Oso pozik
gaude antolake-
tan gabiltzanok
Laudioko
biztanleek egin
diguten harrera-
rekin eta ematen
ari diren
laguntzarekin"**

(Kaitin Allende)

gazteentzako rock-a eta berbenak eta helduentzako herri-kirolak, erromeria, sagardotegia,...

BEHARREZKO JAIA

20. Araba Euskaraz izango da 2000. urtekoa. Euskara kalera ateratzeko helburuarekin antolatu ziren lehenengoak eta gaur ere aldarrikapen zentzua mantentzen du jaiak. Egun

oraindik horrelako jaiak beharrezkoak diren galdetuta, zalantzarik ez du Kaitin Allendek: "Tristeza da beharrezkoak direla esatea, baina gauza guztien gainetik Arabako ikastolen jaia dela esan behar da, eta oso pozik gaude antolaketan gabiltzanok Laudio biztanleek egin diguten harre-
rekin eta ematen ari diren laguntzarekin".



Campusean
•liburudenda
•paperdenda
•informatika



Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



Ramon Basaras: "Lehenengo Araba Euskaraz-etan euskara kalera ateratzea zen helburua"

1981ean, lehenengo Araba Euskaraz antolatu zenean, Arabako Ikastolen Federazioan lan egin zuen Ramon Basaras-ek, eta Arabako ikastolen jaien hastapenaren eta lehen edizioko ekitaldien berri izateko ezinbesteko erreferentzia da egun Armentia Ikastolan diharduen Ramon.

Berarekin batera Jose M^a Rekarte, Errioxako hainbat ikastolaren bultzatzailea, eta Pedro M^a Egidazu Ikastolen Federazioaren garaiko presidentearen lana aipatu behar da, besteak beste. Lehenengo jai hori Olarizun izan zen eta gurutzeraino iristen zen zirkuitoa antolatu zen.



- Nondik sortu zen lehenengo Araba Euskaraz antolatzeko ekimena?

Beste herrialdeetan, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan, antzerako jaiak antolatzen zituzten dagoneko eta horiei jarraituz antolatu genuen gurea.

- Nork antolatu zuen?

Arabako Ikastolen Federazioaren gainean jausi zen antolaketaren pisu guztia. Dena den, dozena erdi pertsonaren artean prestatu genuen jaia, garai hartan ez baitzen gauza handiegirik behar. Olarizu egunaren ospakizunaren inguruan egin genuen, Udalaren azpiegitura aprobetxatzeko eta Gipuzkoa eta Bizkaitik laguntza jaso genuen, haiek esperientzia baitzuten.

- Gogoan al duzu zenbat jende bildu zen?

5.000 lagun inguru elkartu ginen.

- Zein izan zen 81eko jai horren xede nagusia?

Egun proiektu zehatzak aurrera eramateko dirua lortzeko helburua izaten da askotan, baina gure helburua euskara kalera ateratzea zen, propaganda egitea.

Dirurik behintzat ez genuen atera, kontrakoa, ziurrenik galdu egin genuen. Niko Etxartek eta Erramun Martikorenak kantatu zuten eta ekitaldiak atontzeko dirua behar zen, dudarik ez.

- Erakunde, enpresa eta abarren laguntzarik izan al zen?

Ez, ez. Laguntzarik ez zen egon. Orduan ez zen jaia ezagutzen. Ezin gaurko egoerarekin konparatu, egun enpresek antolatzailerengana jotzen dute ahalik eta baldintzarik onenak eskaintzeko...

- Laudiora joango al zara?

Bai, noski. Lan egitea tokatuko zait gainera, ziur.

KAITIN ALLENDE. Koordinatzailea

Euskal Herria-Galizia jaialdia da egitarauaren berrikuntza nagusia

Hilaren 18ko jaiaren azken prestakizunetan murgilduta daude Araba Euskaraz 2000ko arduradunak, egitarauari azkenengo ikutuak ematen eta partehartze errekorra hausteko lanean. Kaitin Allende jaiaren koordinatzaileak hurbiltzen direnek zer aurkituko duten kontatu dio GEU aldizkariari.



- 2000. urteko Araba Euskaraz egitarauaren barruan azpimarratu beharreko berrietasunik al dago?

Bai, aurtan Araba Euskaraz baino lehentxeago, ekainaren 3an, Euskadi-Galizia jaialdia antolatu dugu Laudioko Galiziako etxeekin elkarlanean, eta hori ere azpimarratzekoa dela uste dut. Ellakuri futbol zelaian egingo da: Sorbeltz eta Kepa Junkera euskaldunak eta Luar na Lubre galiziarren aktazioaz gain, bi herrietako dantza taldeen partehartzea izango dugu. Salmenta puntua ere jarriko dugu Euskal Herria eta Galiziako produktuekin.

- Eta ekainaren 18an bertan?

Beste urteetan egin ez den zerbait antolatu dugu, azken berbena-edo deitu daitekeena. Azken ekitaldiak amaituta, jendea autobuserantz dihoala burutuko da, ea autobuserantzako itzulia goxoago egin dugun. Txosna oso handi batean egingo da kontzertua eta Laudio inguruko talde berriek joko dute, bertako musikariak promozionatu asmoz. Sorbeltz taldeak joko du, besteak beste.

Eta berrietasunekin jarraituz, Herriko Plazan, herriaren erdi-erdian beraz, jarri asmoa dugun kafe kantina ere aipatu behar da. Hortaz, eta beste batzuetan ez bezala, bazkari herrikoian edo txosnetan bazkaldu ondoren kafetxoa hartu ahal izango dugu. Tren geltokiaren aldamenean ere kafea eta opilak salduko ditugu zirkuitoari indarrez ekiteko. Eta azkenik, Karmina Burana opera.

- Zenbat lagun partehartzea beharko du antolaketak ekainaren 18an?

Uff!! Ehundaka, milaka,...! Ez dakit, zenbatzen ari gara, taldeak osatzen...

"Beste urteetan egin ez den zerbait antolatu dugu, azken berbena-edo deitu daitekeena, bertako musikariak promozionatu asmoz "



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



etxean jaso nahi dut



Izena

Abizenak

Helbidea

Tfnoa:

P.K.

Herria

Herrialdea

Bankua/Kutxa

Sukurtsala

Kontu zk. (20 dijitokak)

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

II. GAU-MENDI IBILALDIA: MENDIGUREN GORBEIA MENDIGUREN

Ibilaldia uztailaren 15
eta 16a arteko gauean
burutuko da.

2.000

BENZERROTX KULTUR ELKARTEAREN ESKUTIK

**Mendira joatea ez
da batere jarduera
originala, goiza
edota egun pasa
egiten bada behin-
tzat. Baina batere
ohikoa ez dena
gauetz joatea da.
Hala egingo dute
Mendiguren herri-
ko gazteek eta
lagundu nahi dien
lagun orok.**

Bigarren urtea da Mendi-
gurengo gazteek Mendi-
guren-Gorbeia-Mendiguren
ibilaldia antolatzen dutena. Ideia
herriko kultur elkartetik

-Benzerrotx- sortu eta bere fres-
kotasunagatik eraman zen aurrera.
Natura eta ingurugiroarekin harre-
mandutako ekintza izateaz gainera,
helburu estrategikoa du irteera
honek. Izan ere, antolatzaileetako
bat den Itziar Fernandez de
Larrinoak azaldu zuen moduan
"irteera uztailaren 15ean izango
denez, San Fermin-etatik deskantsa-
tu eta Blusaren Egunerako presta-
tzeko aukera paregabea da". Beraz,
toxinak erretzera!

Ibilaldia, gainera, Mendigurenen
antzera, euskaldunon topagune eta
euskal giroaren erakusgarri izatea

nahi dute: "gure hizkuntza eta natu-
rarekiko zaletasuna uztartuko ditu-
gu".

Iazko irteerak izan zuen arrakasta
ukaiezina da. Bizkaitik ere helduta-
koak barne, ehun eta hogeita hamar
lagun inguru bildu ziren eta eguzkia
ateratzen ari zenerako tontorrean
ziren gehienak egunsentiaz goza-



Errege-Erregina Katolikoen kalea, 3 - 4. D
01013 Gasteiz
Tfnoa: 945 260.702



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK





Itziar Fdz. de Larrinoa

Nerea Fdz. Ortega

**Argi utzi nahi dute
irteera ongi pasa-
tzeko aukera dela,
eta inolaz ere ez
lasterketa bat**

tzeko prest, lainoek zertxobait estali zuten arren. Aurten "eguraldi ona" kontratatu dutenez horrelako arazorik ez izatea espero dute.

HARROBIETAN GORA

Aurten antolakuntza landuago batez esperientzia errepikatzeko asmoa dute gazte hauek, eta ezustekorik egon ez dadin iaz bezala Gurutze Gorriaren laguntza izango dute. Gainera, zenbait ibilgailuk eta antolakuntzako pertsona ugarik ibilaldiaren erritmoa eta martxa zainduko dute. Antolakuntzatik ere argi utzi nahi dute irteera ongi pasatzeko aukera dela, eta inolaz ere ez lasterketa bat. Hortaz, lasaienak ere lekurik badu.

Ibilaldia uztailaren 15etik 16rako gauean abiatuko da ilargi beteak

**"Gure hizkuntza
eta naturarekiko
zaletasuna uztar-
tuko ditugu"**

(Itziar Fdz. de Larrinoa)

lagunduta Mendiguren bertatik. Xedea Gorbeia mendiko tontorretik egunsentiaz gozatu ahal izatea da. Bidea herriz herri egingo da, Mendigurenetik Muruaraino doazen herri-bidexketatik. Behin Muruan, harrobien bidea hartu eta horiek igeroraz lortuko da tontorra.

Tontorretik harrobietara berriro, eta hantxe merezitako gosari ederra hartu eta oroimenezko kamiseta bat jasoko du partehartzaile orok. Honen ostean alderantziko bidea, oinez... eta nekaturagi dagoenarentzat autobusa egongo da irteera punturaino bueltatzeko. Beraz, animotsuenek ibilbidearen 24 kilometroak berriro oso osorik egiteko parada izango dute.

Aukera paregabea jende berria eza gutu, gorputza mugitu, naturak eskaintzen duenaz gozatu eta euskaraz bizitzeko!

FITXA TEKNIKOA

EGUNA: 00-7-15/16

ORDUA: 00:00 (Mendigurengo elizaren atzealdean)

IBILBIDEA:

• MENDIGUREN-GORBEIA (24 km)

• MENDIGUREN-GORBEIA MENDIGUREN (43 km)

MENDIGUREN (GAUEKO 12:00ETAN)

➔ ETXABARRI IBINA ➔ BERRIKANO ➔

➔ ONDATEGI ➔ *MURUA.

(*1. HORNIDURA PUNTUA, GELDIALDIA)

➔ GORBEIA MENDIRAKO IGOERARI

HASIERA ➔ TONTORRA (EGUNSENTIA)

➔ URTEGIETARANTZKO BIDETIK

HARROBIETARA* (24 KM-AK EGINAK)

*BERTAN BAPO GOSALDU.

• PUNTU HONETAN, 2 AUKERA:

1) Oinez: Etxaguen > Larrinoa > Ondategi* (*Azken janari hornidura) > Etxabarri Ibina > Mendiguren (43 km orotara)

2) Autobusez bueltatzea (Mendigureneraino)

ANTOLATZAILEA:

BENZERROTX Kultur Elkarte (Mendiguren)

BEHARREZKO MATERIALA:

Eskuargia, txubaskeroa, ur-botila eta ibiltzeko gogoa

IZENA EMATEA-EPEAK:

Uztailak 11 (Aseguruarekin)

Uztailak 14 (Asegururik gabe)

ORDAINKETA:

1.300 pta. (+ 300 pta. aseguruarekin)

2097 0174 16 0008189185

(izena eta bi abizenak)

*Behin-betiko izena ematea:

Ibilaldiaren hasieran bankuaren abonoagiria erakutsiz

INFORMAZIOA:

656 73 91 33

(18:00etatik aurrera. ANDER)

630 42 15 43

[Http://www.mendiguren.net](http://www.mendiguren.net)

E.B.Z



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52



amilamia

arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



euskara harat-honat

Nocilla eta Danoneren arteko gerra

Gizarte askotan gorputzaren gurtzari izugarrizko garrantzia ematen zaio, batez ere uda gertu daukagunean. Egoera hau oso nabaria da Estatu Batuetan, handik heltzen diren film eta telesailetan ikus dezakezuenek. Bertako gizartea bere irudiarekin zeharo kezkatuta omen dago...

Pelikulotan izugarrizko gorpuzkera duten aktore eta modeloak agertzen zaizkigu, argalak, lirainak eta edertasunaren ereduak, Danone-ren iragarki batetik aterata diruditenak. Eta gero, hona iristen zarenean konturatzen zara Danone-gorputz asko daudela bai, baina baita Nocilla ogitartean bezala haragia arropatik isurtzen zaion jendea ere. Edozein lekutan ikus ditzakezu gizon edota emakumeak, beltzak, horiak edo zuriak (honetan ez dago sexu edo arraza diskriminaziorik), kamiseta azpitik eta praka gainean soberan daukaten guztiarekin zintzilika.

Azken hauentzat, uste dut, sortu dute alperkeriaren eta erosokeriaren asmakuntza hoberena: Drive through-a. Hona etorri baino lehen telesailetan ikusita neukan, McDonald's-etan: kotxearekin gelditzen zinen lehiatila batean, janaria ematen zizuten eta bidaia jarraitzen zenuen. Pixka bat arraroa kotxean jatea baina, beno, presaka bazabiltza, ulertzekoa. Beraz, hemen ikusi nituenean ez nintzen



hainbeste harritu. Fast-food jatetxe kate gehienek horrelako lehiatilak dauzkate.

Bada ere jatetxe kate bat parking-a jantoki moduan daukana. Parking-ea aparkatzen duzu, zerbitzaria kotxera dator, zer jan nahi duzun galdetu, eta berehala itzultzen da eskaturikoarekin. Gero, lasai-lasai janariaz goza zaitezke zure kotxea jatetxe bihurtuz. Ipurdi gizen hori mugitu gabe, noski!

Hasieran pentsatzen nuen fenomeno hori jatetxeetan bakarrik aurki zitekeela. Baina orain dela gutxi hasi nintzen drive through-ak leku guztietan ikusten: banketxeetan, gasa edo argia ordaintzen duzun tokian, eta baita gutunak botatzeko errepide erdiko buzoietan ere! Hiriak enkargu guztiak kotxez egiteko prestatuta daude eta argia ordaindu behar baduzu, dirua

atera edo gutunak bidali, kotxetik mugitu gabe egin dezakezu.

Orduan, zeren kultua da hau? Gorputza ala kotxearena? Kotxea hiriaren jabea bada Nocilla-gorputza izatea guztiz posible da, beraz, nola bilakatu Danone kotxeari uko egin gabe? Tira, enkargu horiek kotxez eginez gero denbora piloa izango duzu gimnasia joateko eta erabili ez dituzun kaloria horiek guztiak makina batean 'pesak' eginez erretzeko. Ondoren, zure gihairen indarra erabili ahal izango duzu bolantea arin-arin mugitzeko eta aurrean duzun Nocilla-gorputzeko gidari astun horri drive through-aren txanda lapurtzeko.



Testua eta argazkiak:
Maite Nuñez-Betelu

LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

BOTAK ESEKIZ, SALINASEk AGUR!

Hemezortzi urteren ostean Alaveseko aurrelari bizkaitarrak agur esan dio futbol profesionalari. San Adrianekoak aurrera egin du orain dela hilabete eskas iragarri zuen erabakiarekin, eta hau aldatzeko afizioaren eskaera ere ez da nahikoa izan. Gauzak horrela, Maiatzaren 14an Mendizorrotzak bi denboraldiz jokalaria izan duen Liga aktiboko gol-sartzaile gorena agurtu zuen; bestetik, eta lehenengoz profesional gisa jokatzen ikusi zuen zelaian, San Mamesen alegia, bere azken partidua eskaini zigun Salinasek.

Fitxa tekniko luzea dauka futbolari honek, izan ere gazte zenetik aritu da talde anitzetan. Orain, 37 urterekin, euskal futbolak izan duen jokalaria bikaina zelaietatik erretiratzen da. Hona hemen bizkaitarraren ibilbide ezin hobea

Taldeak

Athleticeko Harrobian

Bilbao Athletic: 80/81, 81/82

Athletic: 82/83, 83/84, 84/85, 85/86

Atletico de Madrid: 86/87, 87/88

F.C. Barcelona: 88tik 94ra (6 denboraldi)

Deportivo de la Coruña: 94/95

Sporting de Gijón: 95/96, 96/97

Yokohama Marinos: 2 denboraldi, 34 gol

LEHEN MAILAN

152 gol sartu ditu

(bere agurrean azkena)

Liga aktiboaren gol-sartzaile gorena

ESPAINIAKO SELEKZIOAN

56 aldiz jokatu du/22 gol

6 LIGA IRABAZI

Athletic-ekin: 82/83, 83/84

Barcelona-rekin:

90 eta 94 bitartean (guztira 4)

LIGA-KOPAK

Athletic-ekin: 86/87

SUPERKOPAK

Barcelonarekin: 92, 93

EUROPAN, BARCELONAREKIN

Rekopa: 89.ean

Europako Kopa: 92.ean

✓ **Jaioteguna:**

1962ko irailaren 11an

✓ **Jaioterria:**

Bilbo

✓ **Adina:**

37 urte

✓ **Batezbesteko pisua:**

75 kilo

✓ **Batezbesteko altuera:**

181 zm



KULKI izenpean euskal kultura eta herri kirolak berreskuratu eta herriari hurbiltzeko xedea nagusitzen da

Parte hartuz, ezagutu

KULKI KULTURA KIROLA

Hiru urte daramatzate Asierrek eta Luisferrek euren lana Euskal Herriko herrietan zehar zabaltzen eta erakusten. Bi gazte hauek KULKI izeneko enpresa osatzen dute, kultura eta kirola uztartzeko sortu ideia. "Kultura eta Kirola bi adiskide on" lelopean Euskal Herriko kirol eta jolas tradizio-nalen esparruan lan egiten du KULKIk.

Gaur egun herri kirolak eta jolasak erakustaldi eta erakusketen bitartez iristen zaizkigu sarri askotan; parte-hartzea, ordea, gutxitan bultzatu ohi da. Joera honen kontra KULKIk usa-

diozko jolas eta kirol hauek praktika-tze eta partehartzearen bidez herrita-roi ezagutzera ematea du helburu nagusia.

Haurrentzako parkeak, jostailuak egiteko tailerrak, herri-kirol lehiaketak eta ikastaroak, hitzaldiak, jostailuen erakusketak... Denetarik antolatzen dute Hezkuntza Fisikoko bi irakasle hauek.



ESKaintza ZABALA

"Kultur edukin handiko ekintzak eskaintzea da gure asmoa", aitortzen du Asierrek. Une honetan hiru parke desberdinekin lan egiten ari dira KULKIko kideak. Horrela, Herri-kirol eta Baserriko Jolasak, Iparraldeko Kirol eta Jolasak eta Artzaien Bizitza eta Jolasak izenburuen pean edozein plaza, kiroldegi edota belardi iraganeko jolas eta jostailuetara itzultzeko leku ezin hobe



bihur daiteke. Parkeotan haur, gazte eta helduek laien gainean zankuetan, orga jokoa, kirrinkari bueltak, lasto altxaketan edota txanelan ibiltzeko parada izaten dute jolas eremua osatzen duten hogeit bat txoko ezberdinetatik pasatuz.

Bi orduko saioaren ostean parte-hartzaileek euskal jolasak eta kirolak ezagutu dituzte, baita horietan jardun ere, horretan baitatza kontua. Publikoak erantzun paregabea izan ohi du jakinminak bultzatuta eta "izatez haurrentzat prestaturik dauden arren, helduenek ere jolastu nahi izaten dute, esate baterako kirrinkari jarraiki eman zituzten haurtzaroko une horiek berriro bizi asmoz".

Eskaintza erakargarria suertatzen da oso eta dagoeneko Arabatik Iparralderaino herri askok eta askok izan dute KULKIren jardueraz gozatzeko aukera.



**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**Xabier
taberna**

**musika ona
eta giro ezin hobea**

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



Asier Lafuente, KULKIko kidea:

“Euskaltasunaren irudi positibo bat zabaldu nahi dugu”

• Nondik sortu zen KULKI aurrera eramateko ideia?

Hezkuntza Fisikoko ikasketak bukatu eta berehala sortu genuen KULKI. Arrazoia asko dira; nire kasuan, betidanik egon naiz herri-kirolaren munduan murgilduta. Kirol hauek eta jolas hauek zeuden egoera kaskarretik ateratzeko grina piztu zitzaigun eta jendeari hurbiltzeko zerbait egin genezakeela pentsatu genuen. Hori da sakoneko arrazoiak eta hortik sortu zen KULKI. Noski, horrekin batera Euskal Herriaren ideia eta euskal kultura zabaldu nahi ditugu. Hasiera gogorra izan zen, baina duela hiru urte enpresa bat gara.

• Muntaketa lan handia da zuek egiten duzuen... Zer moduz moldatzen zarete?

Ondo, oso ondo. Haurrak oso gustatzen zaizkigu bioi eta berrehun bat umerekin batera ongi ibiltzen gara. Bakarrik jarduteko ohitura dugu, KULKI gu biok gara eta guk egiten dugu dena. Diseinuetatik marketinera, guziaz gure esku. Hasi

ginenean ez genuen diru askorik eta ezinbestez moldatu behar izan genuen. Horrek nahiko independente egin gaitu.

• Jolas eta kirol hauen guztien aurretik ikerketa lana egon behar da; nola burutu duzue lan hau?

Gure iturriak etnografiako lanetan daude: Barandiaranen lanak, Etniker Taldearenak... Egia esan, jolasak ez dira hainbeste aldatu, baina beharrezkoa da bilketa eta ikerketa lana. Etnologoak lan handia egiten ari dira, Euskal Herriko Atlas Etnografikoa oso lan interesgarria eta baliogarria da guk sus-

“Gogoan dut behin Iruñeako eskola publiko batean ume batek lehioetik ‘¡viva el euskera!’ oihukatu zuenean”



tatu nahi dugun arloan sakontzeko.

HERRI KIROLAK AHULEZIA

• Erakundeek nahikoa bultzatzen al dute kirola?

Badaude kirol batzuk oso indartsu daudenak, komunikabideetan agertzen direnak... Baina badaude beste batzuk oso minoritarioak direnak, eta horien artean gure herri kirolak daude. Aldundiak diru franko ematen du pilota eta herri kirolei, baina nola kudeatzen den, hori beste kontu bat da. Kirola oso errotuta dago gure gizartean, entzun, irakurri, ikusi egiten da eta, nire ustez, diru gehiegi ematen zaio. Badaude kulturaren arlo batzuk diru horren behar handiagoa dutenak.

• Erdaldunak diren herrietan zernolako jarrerak somatzen dira?

Lan egin dugun toki guztietan oso erantzun ona izan dugu partaideen aldetik. Gure asmoa euskaltasunaren zentzu positiboa helaraztea da eta lortzen dugula uste dut. Umeek eta hain umeak ez direnek jolastuz ikasten dute. Gogoan dut behin Iruñeako eskola publiko batean ume batek lehioetik “¡viva el euskera!” oihukatu zuenean. Horrelako jarrerak izaten dira ohikoena eta horrek pozten gaitu.



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (KUTXI) kalean

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

BUZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

**HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ**



LÀ RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kurxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Zaldiaran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64

Zeuk aukeratu!

KANGEUROAK

Zerrenda berria osatzen ari gara.
Bertan agertzea nahi izatekotan deitu
945 22 21 53 telefono zenbakira eta
zehaztu zure ordutegia.

GAUEZ

Leire 649 57 11 29
Miren 945 13 02 57

ASTEBURUAK

Leire 649 57 11 29
Miren 945 13 02 57
Maider 945 26 15 75

*Emakume-neska euskalduna behar da
2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko.
945 27 44 40 (Edurne)

ERAKUSKETA K

"OZOKH"

Artista gasteiztarrak: Pablo Milicua, Mincho,
Elena Gonzalez, Simonides, Maitane
Magadan...

ZULOA IRUDIA, 00-6-12 arte

LEHIAKETA K

-IGARTZA SARIA. III. LITERATUR
SORKUNTZAKO BEKA IDAZLE BERRIENTZAT
INFORMAZIOA: BEASAINGO UDALA
EPEA: 00-6-30

- "SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA"

III. UNIBERTSITATE MAILAKO IKERKETA
LEHIAKETA. Epea: 00-7-31
Informazioa: Sancho El Sabio Fundazioa.
945 14 78 00

PARRAL TABERNA. EKAINEKO AGENDA
6: Stormy Monday (Blues& Funky). Gasteiz
13: Antzerkia. YU YU Teatro: Esperantoo
20: Rita Aldai (Kuple-a)
27: (zehazteke)

DEIALDIAK

-II. EUSKAL JAIA: ekainak 3

Alde zaharrean. Adi egon!

-AEKANPADA: Meñakan, ekainak 2-3-4.

Geu aldizkariak gomendatzen du

GEUREKIN MENDIRA

*San Adrian baseliza (1.113 m.)
eta Baitza (1.181 m.)
(Etxarri-Aranatz abiapuntu eta helburu)

NOIZ: Ekainaren 18an

IRTEERA: 9:30etan Prado kaletik,

Txapela tabernaren aurrean

ITZULERA: 16:00 GASTEIZEN

EDOZEIN ARGIBIDETARAKO DEITU TELEFO-
NO HONETARA: 945 14 62 96 (IÑAKI)

ZALDUONDOKO KULTUR ELKARTEA

SIMONIDES ERAKUSKETA
UZTAILAREN 30-a arte
LAZARRAGA JAUREGIAN,
ZALDUONDON

MUSIKA. Elkarlanean-en eskutik

URA H2O OSKORRI

Ura Oskorri taldearen
erronka handia da,
benetako heldutasuna-
ren eta egonkortasuna-
ren isla: 14 abesti berri,
guztiak ere iradokitzaile-
ak, ezin hobeto interpre-
tatutakoak eta kalitatez ekoiztutakoak, erakar-
garri bezain lehiakor izango den lanaren oina-
rri direnak. Kolaborazioak: Kepa Junkera, Glen
Velez, Ivo Papasov, Michel Bordeleau,
Faltriqueira, Javier Tejedor, Harkaitz eta Igor
(Oreka TX), Pedro Estevan, Frederic Gaillardet,
Mixel Etxekopar, Jacky Berecochea, Juanan
Diez, Julio Andrade...



iRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33

GASTEIZ

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma jeneralaren plaza, 5 eta Mateo de Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Lehiaketa



Entzun! Musika aldizkaria hilero zure etxean jaso nahi duzula?

Ba... bidali lehenbailehen galdera honen erantzuna -izena (ALDIZKARIKO ETIKETAN agertzen dena) eta telefono zenbakiarekin batera- Geu aldizkarira (helbidea, 4. orrialdean), Entzun! aldizkariko urte osoko harpidetza zozketatzen baitugu berau asmatzen duzuen artean.

EKAINEKO GALDERA:

Maiatzaren 26an Tomas San Miguel eta Jorge Pardoren kontzertua izan zen Oihanederra Gunean (Montehermoso Kulturunean). Zein obra jo zuten?

Maiatzeko irabazlea:

Irune Garcia Quintana Zorionak!

Maiatzeko erantzuna:
LA POLLA

***EMAITZA ETA SARITUA**
DATORREN ALEAN (EKAINEAN)

***LEHIAKETAN ESKU HARTZEKO**
HARPIDEDUN IZATEA EZINBESTEKOA DA
(ETIKETAREN IZENA ZEHAZTU).

GURIDI

SAMANIEGO

Ekaineko Estreinaldiak

-Lista de Espera

Zuzendaria: Juan Carlos Tabio. Aktoreak: Vladimir Cruz, Thaimi Alvario, Jorge Perugorria, Saturnino Garcia...

Kubako herri bateko autobus geltokian, autobusaren zain dagoen jende ilara gero eta luzeagoa da, autobus guztiak bete-beteta baitaude. Jendeak duen itxaropen bakarra da izorratuta dagoen autobus bat konpontzea. Orduak aurrera doaz... Emilio, injineru gazte batek, Jacqueline emakume ederrak, itsu batek eta beste hainbat pertsonajek itxaroten darraite. Azkenean autobuse-ra igotzen dira, baina segituan izorratzen da. Orduan Emiliorek bururatzeko zaio guztion artean konpontzea... Horrela apurka-apurka denon arteko istorio bitxi eta polit asko sortuko da.



-Destino final
-Tierra de fuego
-Stuart little

-SOÑÉ CON AFRICA

Zuzendaria: Hugh Hudson. Aktoreak: Kim Basinger, Llam Alken, Vicent Perez.

Kuki Gallman izaera hezikaitzeko emakumea da eta bere semea Emanuelerekin batera bizi da Italian. Monotoniatik ihes egitea erabakitzen dute eta Paolo, Kukiren senarrarekin batera, Afrikara joatea erabakitzen dute. Bertan, sekula ezagutu ez dituzten sentazio eta sentipenak biziko dituzte. Leku hain basati batean egoteak dakartzan zailtasunak handiak badira ere, bizitako abentura eta egoe-
rek Kuki erabat aldatuko dute.



-60 segundos
-Campo de batalla
-South park

ADI LEHIAKETARI!!!

GURIDI ETA SAMANIEGO ZINEMEN ESKUTIK ZINEMARAKO 2 SARRERA ZOZKETATZEN DITUGU ERANTZUNA ASMATZEN DUZUEN HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Maiatzeko erantzuna: CAPITAN TRUENO

Irabazlea: UNAI MORAZA YOLDI • ZORIONAK!

EKAINEKO GALDERA:

ALAVA JENERALAREN KALEAN 2 ZINE ARETO
ZEUDEN DUELA URTE BATZUK. ZEINTZUK?

*Erantzuna eta saridunak datorren alean BIDALI ERANTZUNA GEU ALDIZKARIARA (4. orrialdea)
...bilaren 20a baino lehen. POSTAZ EDO E-MAIL-EZ, ZUEN IZENA (ETIKETAKOA)
ETA TFNO. ZENBAKIA ZEHAZTUZ.

MERKURIO-KADIMOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUEK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y Galdos, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

HEGOALDE

Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

XIXILU

JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Txerokiren abenturak





HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errolda Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 33 16 12 61 16 36 91 16 15 19 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

IZADIA GUSTATZEN BAZAIZU,

ASEKO



ZARA

**Mendiz • Ibaiz • Parke Naturalez
Fauna Babestuz • Tokiko Floraz...**



ALAVA+activa
ARABA soraz



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

.....
www.alava.net